

# **Joan diren hogeitun urteok gure posizioa indartzen dute**

**“Interpelazio soziala ezinbestekoa da  
subiranismoa elikatzeko”**

**2017ko azaroaren 7a**

**ELA**  
**EUSKAL SINDIKATUA**

Hogei urte igaro dira ELAk Gernikan egin zuen ekitalditik. Urteurren hau dela eta, ELAk euskal autogobernua zertan den hausnartu du, bere apustu subiranistari erreferentzia ematearren.

## **A.- HOGEI URTEAN GAUZA ASKO GERTATU DIRA**

**1.- AUTOGOBERNUAN INBOLUZIO BASATIA.** Ez dago autogobernurik. Horren orde zerk daukagu? Dezentralizazio hutsa; Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak Madrilen PPK edo PSOEek erabakitako politika berberak garatzen dituzte.

Hau ez du ELAk bakarrik esan. Eusko Jaurlaritzak berak duela gutxi Madrilera bidali duen agiri batean konfirmatu du: Estatutua onartu eta 38 urte igaro direnean oraindik eskumenen transferentzia osa dadila ari da eskatzen. Jaurlaritzak agiri horretan esaten du oinarri-legeen aplikazioarekin eta Auzitegi Konstituzionalaren epaiekin euskal instituzioak espainiar Gobernuaren luzapen huts bilakatu dituztela. ELA bat dator diagnostiko horrekin.

Eskumenen inbasioa erabatekoa da. Gaur dagoen honi inork ezin dio, seriotasun apur bat izanik, "autogobernua" deitu. Gure erakundeak Estatuaren erabakien betearazle hutsak dira. "Akolitoak", esan zuen Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzaren bozeramaileak, aipatutako agiria aurkeztu zuenean.

Inboluzioaren ondorioak orden guztietan pairatzen ditugu:

1. Doikuntza-politikak eta erreforma estruktural neoliberalak. Pentsio erreformak, lan erreformak, zorraren ordaina, bankuen zuloa kitatu beharra, gastu-araua... PPK politika hauek "patriotikoak" direla esan du, Espainia bateratu egiten baitute. Gasteiz eta Iruñeko gobernuak Madrilekin sinatutako aldebiko akordioek eragin sozial larriak dituzte; horien artean nabarmentzen da gastu-araua: honek galarazi egiten du gizarte-gastua gehitzea, baita diru-bilketa hazten ari denean ere.
2. Enplegu-politika aktiboen transferentziarekin Eusko Jaurlaritzak baztertu egin du betidanik mantendu izan zuen posizio politikoa. Politika pasiboak alde batera utzi zituen eta Estatuan ezarritako eredu bera ontzat eman zen, bertan politikak erabakitzeko aukerarik gabe.
3. Hezkuntzako politikak, Lomceren aplikazioa barne.
4. Funtzio publikoaren definizioa: Madrilek ametitzen duena, besterik ez.
5. Arlo publikoko negoziazio kolektiboa ere oinarri-legeen menpe dago; halaxe berretsi zuen atzo Erkorekak, esanaz soldatak igoko direla Rajoyk uzten badie.
6. Beste hainbat gaitan ere, zorrotz aztertuz gero, erabakitzeko tartea ezabatu egin da.

Egunotan ELAk nabarmendu egin nahi du Eusko Jaurlaritzak Gizarte Segurantzaren transferentziari buruz hartu duen posizio politikoa. Honekiko ere Estatutuan jasotako edukien erreibindikazioa bera ere ahaztu du, eta transferentzia gertatuz gero aldaketa bakarra izango da: bulegoetako errotuluena.

Eusko Jaurlaritzak aitortu du, izan ere, delegazio huts ari dela bilakatzen, baina horrek ez du inolako eragin politikorik. Jokatzen du hori gertatuko ez balitz bezala. ELAk galdegin du eufemismoak eta esaldi anbiguoak alde batera uztea: juzku politiko horrekin bateraezina da esatea "aldebikotasuna" balekoa dela. Benetan, horrelako terminoak erabiltzeak adierazten du menpeko posizio politiko bat onartzen dela.

Euskal instituzioek eman duten erantzun bakarra izan da Auzitegi Konstituzionalera jotzea. Haatik, duela 25 urte Jaurlaritzak esan zuen instantzia horretara ez zela gehiago joango auzitegi "politikoa" zelako. Agerikoa da urteak pasa ahala izaera politiko hori areagotu egin dela, baina Eusko Jaurlaritzak orduko esanak ahaztu eta auzitegi horretara jotzen du atzera.

**2.- ETA ARMAGABETU EGIN DA.** 1997an, Ajuria-eneko Itunaren garaian, ETAk atentatuak egiten zituenean, ohikoa zen esaldi bat, baita PPren eta PSOEn ahotan ere: "bortizkeriarik gabe edozertaz hitz egin daiteke". Baina ez zen egia.

ETA arazo objektiboa zen indar subiranistak batzeko. Urte gehiegi igaro da ELAk 1997an proposatu zuen ondorio horretara iristeko.

Beraz, ETAk bere jarduera amaitu duelarik, prozesu zibil eta demokratikoak ez daude tutelapean; espainiar Konstituzioaren 8. artikuluan ezarritakoa alde batera utzita, noski.

Baina, gure iritziz, orduan begibistakoa zen, eta gaur ere hala da, prozesu subiranista ez dagoela soilik ETAn existentziaren baitan. Aski da Katalunian gertatzen dena aintzat hartzea.

### **3. EAJ, *status quo*aren alde, ondorio guztiekin:**

1. Estatuarekiko konfrontazio demokratiko oro baztertzeko da. Bere proiektu neoestatutistaren mamia eta bereizgarria Kontzertua kudeatzea da, besterik ez, betiere aberatsen eta enpresarioen mesedetan. Iraganen beste erreferentziaren bat izan bada, esaterako Ibarretxeren garaiko Estatutu Politikoa, ez da bere posizio politikoan nabari.
2. PPrekin eta PSOErekin batera politika neoliberalen aplikazioa.
3. Joko-arau demokratikoen aurkako borroka: euskal gehiengo sindikalari ukatu egiten zaio langileek eman dioten aitortpena.
4. Arbuiatu egiten du botere politiko eta ekonomikoarekiko erabateko autonomiaz boterea interpela dezakeen edozer.
5. Enpresen interesekin lankidetzat estua du.

### **4.- LAN-HARREMAN ETA GIZARTE-BABESEKO ESPARRUA DEUSEZTATU: NEGOZIAZIO KOLEKTIBORIK GABE EZ DAGO AUTOGOBERNURIK.**

Gaur lan-baldintzak finkatzeko funtsezkoa den gai bat aipatu nahi dugu: negoziazio kolektiboa. Espainiako patronalak galdegin zuen negoziazio kolektiboaren estatalizazioa, soldadak jaitsiarazi nahi baitzituen. Zapateroren erreformak ezarri zuen negoziazio egiturarekin Estatuko patronalak eta sindikatuek erabaki dezakete hemen zer ezin den negoziatu, ELAk eta LABek gehiengo nabarmena izanagatik ere.

Ezinbestekoa da gogoratzea erreforma hura EAJren abstentzioari esker atera zela aurrera. Honek agerian uzten du krisialdi honetan alderdi horrek ez diela bat ere garrantzirik eman euskal langileen eskubideei. Orduko hemerrotekan ikus daiteke baieztapen hori egia dela: euskal sindikalismoarentzako berebiziko garrantzia zuen gai honetan ez zuten gurekin

harremanetan jartzeko borondaterik agertu. Bere jokabidea Madrilen zeharo bestelakoa izan zen 1994an, antzeko egoera batean.

Edozein eremutan gerta daitekeenaren adibide dugu, berriz, Ostalaritzako Akordio Markoa. Negoziazio kolektiboa estatalizatuz sektore-hitzarmenak negoziatzeko aukera galarazi nahi digute. Euren asmoa da Estatuan patronalak, CCOO eta UGTk erabakiz gero guk ezin dugula negoziatu, negoziazioa galaraztea. "Egiturezko akordio" esaten diete, eta gezurretan ari dira esaten dutenean ez dietela lan-baldintzei eragiten. Aipatu dugu kolektibitateen kasua: sektorean lanean hasten diren langileei -gehienbat emakumeak-soldata %50 txikiagoa ordaintzen diete. Baldintza negargarri hauek euskal erakundeen azpikontratetan ere aplikatzen dira. Hartara, gure administrazioek eskaintza merkeenei esleitzen dizkiete kontratu eta zerbitzuak: Ez die bat ere axola gure jendeak zein baldintzatan lan egiten duen.

CCOO eta UGTk patronalari lan zikina egiten diote, lan-baldintza miserableak ezar ditzan. Duela hamar egun Bilbon izan zen epaiketean patronalak bere posizioa azaldu zuen esanez guk sektoreko euskal negoziazio kolektiboa aldeztu dugula, "sistema feudala", haren esanetan. Inpugnazioa CCOO eta UGTk sartu zuten.

Hauek erabaki politikoak dira; hau inboluzio soziolaborala da, eta eragin larria du guregan. Horretaz hitz egin beharra dago, eta argi gainera. Lehendakariari bilera bat eskatu genioen azaltzeko negoziazio kolektiboaren estatalizazioa zer nolako arazoa den, baina ez gintuen hartu. ELAk Lehendakariari esan nahi dio Lan Harreman eta Gizarte-Babeseko Euskal Esparrurik gabe, negoziazio kolektiborako eskubiderik gabe, ez dagoela autogobernurik.

**5.- EZKERRARENTZAT GIZARTE-EREDUA BIGARREN MAILAKO KONTUA DA.** Gure herrian ezker politikoak lehentasun bat du: instituzioetako lehia baldintzatzen duten hauteskundeak. Hori, jakinik gaur zer nolako muga estuak dauden ezarrita, zeintzuk behar dugun gizarte-politika egitea galarazten duten; baina muga hauek aipatu ere ez ditu egiten. Ezkerra erakundeetan sartzan denean gizarte-politika definitzen duten osagai nagusiak (zerga-politika, aurrekontuak...) erlatibizatu egiten dira.

Hau hankasartze handia da. Subiranismo politikoak burujabetzara gizarteko sektore berriak erakartzeko "palankak" zehaztu nahi ditu, baina aldi berean ez die jaramon handirik egiten bizi- eta lan-baldintza duinak ezartzeko baliagarriak diren politikei, sarrera eta gastuak aintzat hartu behar dituzten aurrekontu-politikei alegia.

Zoritxarrez, zerga-politika eta aurrekontuei buruzko diskurtso neoliberalak gaur hegemonikoa da.

**6.- KRISI ESTRUKTURAL LATZA.** Krisia dela eta estatuak Europarekin doikuntza-politikak hitzartu dituzte, eta hauen lehentasuna zorraren ordaina eta erreforma estrukturalak dira.

Bestalde, Estatuak autonomia-erkidegoak politika horiek betearazteko menpeko bihurtu ditu. Gure administrazioek inolako gatazkarik gabe adostu dute politika horiek gurean ere aplikatzea.

## **7.- ETA NAFARROAN... BOZKATU ERE EGIN EZ ZEN FORUAREN HOBKUNTZA NAGUSI.**

EAEri buruz aipatu ditugun autogobernuaren gabezia guztiak Nafarroan ere antzeman daitezke. Badakigu aldaketa zaila dela, baina aldaketa soilik gobernuan agintzen duten alderdiak ordezkatzera baino askoz gaitzagoa da, eta egiteke dago.

Autogobernuari buruz, Hobekuntzaren Legea hankamotz dago: nafar herritarrek ez zuten bozkatu; esparru honen izpiritua antieuskalduna izan da, eta horri esker eskuinak gobernuan luzaz iraun zuen.

Gaur ELAk berretsi egiten du Nafarroako herritarrek erabakitzeko eskubidea dutela.

## **8.- IPARRALDEAK LEHENENGOZ BERE ADMINISTRAZIO BAT DU.**

ELAk nabarmendu nahi du Batak egin duen lana, izan diren mobilizazioak eta hori gauzatzeko joera politiko desberdinak bategiteko erakutsi duten gaitasuna.

Egia da instituzioaren eskumenak mugatuak direla, baina Iparraldeak behingoz bere herritar guztiak ordezkatzeko dituen instituzio bat du eskura.

Estrainekoz herritarrek beren eskariak instituzio bati luzatzeko aukera dute. Herri ikuspegitik, berriz, instituzio honekin oinarriak ezar daitezke Nafarroarekin eta EAArekin batera egitasmoak garatzeko.

## **B.- KATALUNIAKO PROZESUA**

### **1. EZAUGARRI POSITIBOAK:**

- **Bortizkeria eza.** Kataluniaren defentsa demokratikoa goraipatzekoa da. Eredu zibikoa hautatu dute, eta horrenbestez apurtzailea. Erabaki garrantzitsu bat hartu dute: bortizkeriarik gertatzen bada, ez da euren aldetik etorriko.
- **Mobilizazio eta egitura soziala.** Katalunian oinarri sozial sendoa bat dago, eta hori balio handia da. Halaber, oinarri horrek bultzatu du prozesua. Hori gabe ezin da ulertu han gertatzen dena.
- **Soberanismoaren aldeko batasun politikoa.** Arduradun politiko horiek ondorioztatu dute ez dagoela ezer egiterik gaurko Espainiarekin, eta erabaki dute konfrontazio demokratikoa antolatzea.

### **2. ESTATUAREN UKAPENA SISTEMATIKOA DA. Biolentzia estatutik dator.**

- Gaur Espainia demokratizatzea ezinezkoa da: hori ditugu PP, PSOE eta Cs. Gatazka ez zen irailaren 6 eta 7an sortu; jatorria beste bat da: Estatuak Kataluniaren erreibindikazio oro goitik behera ukatzen du.
- Konstituzioa erreformatzeko proposamenarekin Estatuak ahulak edota inozoak liluratuko ditu gehienez. Erreforma horrek, 1978an zeukaten frankismo-konplexua ahaztuta dagoenez, Estatuaren inboluzioranzko biraketa berretsiko du, PP, PSOE eta C's-en babesarekin.

- ELAk hainbat arazori buruz ohartarazi nahi du: Estatuan kultura demokratikoa oso urria da eta ezintasuna dago arazo politikoei irtenbide politikoa emateko. Kataluniari soilik eskaintzen zaizkio Kode Penalaren ezartzeko prestatuta dauden auzitegiak. Biolentzia, gorrotoa, bestelako iritziekiko mespretxua... horiexek dira nazionalismo espainiarraren ezaugarriak. Eta azken muturrera iritsi dira Kataluniako gobernu legitimoa espetxeratuz.
- Ba ote dago independentista izateko aukerarik? Posible da sardana dantzatzea, baina instituzio katalanetan ezin zaio erabakitze eskubideari bide demokratikorik eman, %55a nahiz %80a duzula ere. Estatuak betoa ezartzen du, eta beto hau gainditu nahi izanez gero, deabru guztiak agertzen dira. Burujabetzaren helmuga instituzioetara iristen denean lehertzeko ahal duten guztia egiten dute (155. artikulua). Hori ari da gertatzen.

### 3. PP, PSOE ETA Cs, ERREFERENTZIA SUBIRANISTA DEUSEZTATU NAHIAN

1. Espainian subiranismoa sinbolikoa edo folklorikoa izan daiteke... Ez dago beste modurik. Instituzioetan ezin du inolako adierazpen praktikorik izan.
2. Argazki politikoak dio, garaiak garai, Mugimendu Nazional berri bat osatzen ari dela, eta oraingoan PSOE ere bere parte dela. Gero eta ulergaitzagoa da zertarako egin zituzten primariak.

### 4. HEDABIDE BATZUREN LANA: Subiranismoaren zatiketa politiko eta soziala helburu.

1. Estatuan oso komunikabide gutxi erabaki du auzi katalanari buruzko informazioa gutxienezko oreka ematea. Objektibotasuna aldebakarreko ikusmoldearen pean itota geratzen da. Hor dugu Juan Luis Cebrian Prisa taldeko kontseilari-ordezkararen adibidea: *El País* egunkariaren artikulua batean zioenez, Kataluniako auzia "1981ko kolpe-saioa edota ETaren terrorismoa baino larriagoa da (...), eraso (...) instituzioek bultzatzen baitute". Ohartarazten duenez, batasun politiko konstituzionala ezinbestekoa da, "batez ere legalitatea bere onera ekartzeko Gobernuazkenean indarra modu zilegian erabiltzera behartuta egongo balitz". Bere aita falangista zen.
2. Hedabide hauek Espainiako Gobernuaren laguntzaile dira batasun politiko subiranista zatikatzeko helburuan. Estrategia honen xedea da subiranismoaren posizio politikoa haustea.

## C.- EZTABAIDA NAGUSI HONEK ERAGINA DU GUREGAN.

Klase-sindikatu abertzale den aldetik, ELAk 1997an bezalaxe bere posizioa adierazi nahi du.

1.- **AUTOGOBERNUAN GERTATUTAKO INBOLUZIOA SALATU.** Neoestatutismoak autogobernuan izan den inboluzioa hauspotzen du. Ezin da erabakitze eskubiderik lortu Estatuarekiko konfrontazio demokratiko fase bati ekin gabe, gizarte zein instituzio mailan. PSOEk, PPK eta Cs-k subjektu politiko bakarra aitortzen dute, Espainia.

2.- **BEHAR-BEHARREZKOA DA EZTABAIDA POLITIKOA ARGITZEA: Aldebikotasunik ez dago.** Estatu inboluzionista honekin bi aukera daude: Estatuak bere aldebakarreko irakurketaren inposizioari men egitea (horretan ari da) edo beto hori hausteko estrategia subiranista lantzea, aliantza egokiak bilatuz. Azken hau da ELAren hautua.

*“Erabakitzeke eskubideari buruzko erreferendum adostua”* aipatzen duten batzuk badakite hori ezinezkoa dela espainiar Estatuarekin. Ez dira hain lañoak; euren asmoa da errealitatea ezkutatzea, egingarriak balira guztiok onartuko genituzkeen termino horiekin. Bai baitakite, guk bezala, Espainia ez dela Kanada, ezta Britainia Handia ere.

Horrelako akordioak proposatzen dituztenek galdera bat erantzun beharko lukete: Zein da euren eskaintza politikoa aurrez-aurre inboluzio hutsa dugunean?

Erakunde katalanak izan baitira, hain justu, Estatuarekiko ituna bilatu dutenak. Urte askotan saiatu dira, baina ezezkoa erantzun bakarra izatea, etengabeko ukoa onartu ez dutelako, auzitara eta espetxera eraman dituzte.

Gure ustez Gasteizko Legebiltzarreko Autogobernuari buruzko batzordeak, tempus-aren kudeaketa gorabehera, ez du etorkizunik helburua PP eta PSOErekin akordio transbertsala lortzea bada. Helburua hau bada, batzorde horren garapena estatuko indarren baitan egongo da, orain Konstituzioaren erreforma plazaratu duten horien baitan. Luze gabe esango dute erreforma hori laster egingo denez ikusi egin beharko dela zer nolako garapena duen. Beste legegintzaldi bat joango da alferrik da.

**3.- SUBIRANISMO SOZIALAREN ALDE.** Gure jendearen eskubide eta nahiak izan behar dira gure kezka.

- ELA eta LABen Dokumentua garatu. ELA eta LAB aitzindari izan gaitzke, izan behar gara, neoliberalismoaren aurkako frontean, baita euskal neoliberalen aurka ere. Neoliberalismoak eskubideak eta askatasunak suntsitzen ditu, bai eta burujabetzak ere.
- Agiri hori garatuz, ELAk eta LABek gure jendearen arazorik behinenak jorratzeaz gainera oinarri subiranista hedatzeko lan egiten dugu. Eskubide laboral eta sozialekiko konpromisoa agertzen duen agendak subiranismoaren oinarri soziala zabaltzen du.
- Gainera, ELAk eta LABek ezker politikoarekiko beste harreman eredu bat landu behar dugu. Ezkerrak ez du gizarte-eredua, ez klase-subjektua erlatibizatu behar. Ezker politikorik ez da posible mugimendu sindikalarekiko lehentasunezko harremanik ez badago. Noski, gure ustez mugimendu sindikala indartsuagoa litzateke ezker politikoak bide horretatik jotzea erabakiko balu.

**4.- ELA-LAB: Desadostasunak gainditu behar ditugu.** ELAren eta LABen arteko elkarlanak eragina izan dezan lan-, gizarte- eta politika-arloan, negoziazio kolektiboan ditugun desadostasunak konpondu behar ditugu. Bizkaiko zahar etxeetako grebak -non bakarrik egon garen- erakutsi du, erretorikatik haratago, prekariedade berri honi aurre egiteko lortu behar diren edukiak gauzatzeko ezinbestekoak direla borondate erreibindikatioa eta borrokarako tresnak. Borrokaren helburuak, estrategia eta bitartekoak homogeneousak ez badira, sindikatuen arteko lehia ezin da bideratu, eta horrek taxuzko emaitzako lortzeko gure ahalmena mugatuko du. Eta oinarritzko eztabaida hau, eztabaida estrategikoa hau, guri dagokigu, ELAri eta LABi.

Hau iraganean ez da posible izan, baina orain izan beharko litzateke. Sinetsita bagaude arlo soziala dela subiranismoaren oinarrietako bat, ELAk eta LABek eztabaida estrategikoei ekin behar diegu, gauzatuko bada.

5.- **SUBIRANISMOARI GUTXIENEO PARTEKATUAK PROPOSATU.** Horien artean Lan Harreman eta Gizarte-Babeseko Euskal Esparruaren defentsa, eta instituzio- zein lan-eremuetan joko-arau demokratikoak aintzat hartzeko bermeak. Euskal langileok gure erabakitzeko eskubidearentzako errespetua exijitzen dugu, baita euskal instituzioen aldetik ere.

Gutxieneko oinarri horiek EAEn eta Nafarroan eztabaidatu behar dira.

6.- **ELA ETA ESTATUS POLITIKO BERRI BATI BURUZKO EZTABAIDA.** ELAk ez du babestuko Estatus Politiko berririk beronetan ez badira bilatzen euskal langileen bizimodu eta lanaren kalitatea baldintzatzen duten funtsezko osagaiak:

- Erabakitzeko eskubidea.
- Lan Harreman eta Gizarte-Babeseko Euskal Esparrua.
- Negoziazio kolektiborako eskubidea.
- Ordezkaritza sindikalean joko-arau demokratikoekiko errespetua.

Ez dago euskal autogobernurik Lan Harreman eta Gizarte-Babeseko Euskal Esparrurik gabe eta negoziazio kolektiborako eskubiderik gabe.